



Toribioren kapela magikoa

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako neska-mutilekin denbora hartu behar da ipuinak kontatu eta liburuak irakurtzeko, eta taldean bilduta egiten bada hobeto. Halako ariketak oso baliagarriak dira zalantzak argitzeko, kontzeptuak finkatzeko edo eztabaidak sortzeko, besteak beste. Proposatzen dugun ariketa honek ikasleek publizitatearen bidez jasotzen dituzten mezuak ezagutzeko aukera emango digu.

EMAN BEHARREKO URRATSAK:

1• Ikasleak taldean bildu eta telebistan zer ikusten duten galdetu. Konfiantza emateko, lehendabizi marrazki bizidunei buruz hitz egin. Eta pixkanaka-pixkanaka solasaldia publizitatera bideratu: zein iragarki ezagutzen dituzten galdetu, askotan ikusi ote dituzten, bereziki zer gogoratzten duten...

2• Ikasleek zein jostailu nahiago dituzten ezagutzeko galderak prestatu. Publizitateak haurren desioak pizten ditu, eta jakina da askotan eskatzen dituztela telebistan ikusten dituzten produktuak. Ziurrenik gehienek antzeko jostailuak eskatuko dituzte. Hori hala den ezagutzeko, gustuko dituzten jostailuen berri jaso.

3• Ipuinaren kontaketa. Ikasleen preferentziak ezagutu ondoren, Toribio y el sombrero mágico ipuina kontatuko diegu. Istoria honek Toribiori gertatutako pasadizo bat kontatzen du. Egun batean kapelu magikoa aurkitzen du, eskatzen dion oro ematen dio kapeluak Toribiori. Astero zerbait eskatzen dio: sagarrondo bat, galtzerdi berriak, erosketak egitera joateko otarra... Toribioren lagunek ez dute ulertzen Toribioren jarrera. Auto ikusgarria, hondartzaren alboan dagoen etxea edo dirua zergatik ez dituen eskatzen galdetzen diote, baina Toribio-

rentzat garrantzi gehiago dute berak egiten dituen eskaerak.

4• Hausnarketarako tarte zabaldu. Ipuina irakurri ondoren, presarik gabe egin behar da. Denbora horretan ikasleei ohartarazi behar zaie egunerokotasunean behar-beharrezkoak diren gauzak zeintzuk diren, eta lehentasunak ezartzea komenigarria dela.

5• Kartelak marraztu. Hausnarketa hori amaitu ondoren, norberaren ikastetxea hobetzeko behar-beharrezkoak diren gauzen zerrenda egitea proposatuko diegu. Zerrenda osatu ondoren, bertan idatzitakoak kartulinetan jarriko ditugu kolorezko margoekin. Amaitzean, gelako paretetan zintzilikatuko ditugu.

HELBURUAK

- Publizitatearen bidez ikasleek jasotzen dituzten mezuak ezagutzera.

HARREMANA DUTEN GAIAK:

- Lengoia
- Plastika

MATERIALAK

- Kartulina
- Margoak

